

Hamaika kontugatik dugu ezaguna eibartar hau. Euskaltzaina, idazlea, abertzalea, ararteko ohia... bere bizitzak hamaika arlo jorrazteko lain eman dio, eta oraindik ere ematen dio, gainera, elkarrizketa honen aitzakiak berak erakusten duen bezala. Izan ere, gaur EHUko Argitarapen Zerbitzuarekin argitaratu berri

## JUAN SAN MARTIN

I D A Z L E A

duen 'Giro Gori' poema liburuaren inguruan zentratu nahi izan dugu galdetegia. Euskara, Euskal Herria, maitasuna, gizakia eta beste hainbat gai jorrazuz 1954tik 1977ra bitartean

'Otsalar' ezizenez idatziriko poemak bilduma honen aurretik 'Euskararen ostarreak' saiakera argitaratu zuela ere ezin ahantzi.

# «Euskararen Kontseiluan konfiantza badut»

*Hondarribian bizi da eibartar hau, dion etxe batean. Bertan, margoak eta hain maite dituen mendi txangoetan jasotako az-tarnak nagusi dira.*

■ **Soldadutzan zeundela konturatu omen zinen zure euskalduntasunaz, zure azken saiakeran irakur daitekeenez.**

Bai, amari gutunak idazten hasi nintzenean, erdaraz gogorra egiten, eta euskaraz idazten hasi nintzaion, erdarazko ortografiarekin. Sentikorra goa, hurbilago sentitzen nuen horrela. Poliki-poliki deskubritu nuen nire naturalezan egokiago erabiltzen nuela euskara. Hizkuntza bat hotz-hotzean jakin daiteke, baina nik ikasi dut nire sentipenak eta pentsamenduak garatzeko, euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen naizela.

Egin ditudan sormenezko lanak, poemak bezala, edota saiakerak edota ipuinak, euskaraz nahiago nuen egin, hobeto adierazten baitut. Nire sormenerako hizkuntza euskara da.

■ **Euskaltzale ere soldadutzan ezagutu omen zinen.**

Euskara ordura arte modu popularrean gustatzen zitzaidan. Bertsolariak ikustera joaten nintzen. Euren hitzen jokoa asko gustatzen zitzaidan. Poesia ere horregatik gustatu izan zait. Baina hortik aurrera ez nuen beste ezer pentsatzen.


Baina gero, soldadutza garaian ikusi nituen ikusirik, kontzientzia hartu nuen, neure herriarekin egon behar nintzela eta ez nintzela unibertsala, Eibarko zenbait sozialistak zioten bezala, neure hizkuntzagandik, neure herriagandik joan gabe. Unibertsua orokorra da, orotarikoa, eta orokortasun hortan dago unibertsaltasuna. Inori ez zaio ukatu behar bere naturalza.

■ **Belaunaldi askoren erreferentzia bilakatu diren poeten laguna izan zara. Pribilejiatu sentitu izan zara horregatik?**

Ni gaztetandik batez ere irakurle izan naiz. Eskuetara etorri zaidan guztia irakurri dut, alde eta kontrakoa.

Sarri, liburu bat irakurtzen duzunean, batari eta besteari eginko aipamenak irakurtzen dituzu. Ezagutzeko gogoia ere sortzen zaizu, eta baten batzuen bila joan nintzen, bai, ezagutzeko gogoagatik.

■ **Zuk zeuk ere idatzi izan duzu. Inguruan zenituen idazleen ar-**



Juan San Martinen ustez, askoz beharrezkoago dute euskara ikastea euskaltzaleek, euskal abertzaleek, funtzionarioek baino.  
EDURNE KOCH

**tean, idazle moduan noengandik sentitu zara gertuago?**

Euskararen eman nahi izan dudana da beste zerbait diferentea, zerbait berria. Nire kezkek agertu ditut, esate baterako. Poemetan egin ditudanak dira oso nire gauza barnekoak, intimoak. Horregatik erabiltzen nuen ezizena, Otsalar. Horregatik, eta batzuk aberkiak zirelako. Beste batzuk existentzialistak zirelako, zeren horiek ia debekatuak ziren hemen garai haietan. Debekatuak, esate baterako, erlijioa dudana jartzea, eta nik neure kezkek nituen. Aspaldidanik zetozen nire kezkek, gaztetxotik.

Gaur badirudi taldeko edo kolektiboki hartzen dutela batzuek jarrera, batera edo bestera. Gauzak nahastu egiten ditugula uste dut. Gauza bat da ideologia politikoa. Beste bat da naturala izatea. Eta beste gauza bat da sinesmen kontua. Fede kontua, azkenik.

Nire zalantzen barruan era guztietakoak ikusi ditut. Mires-

POESIA LANAK

«Beti kezkatua, euskarari eskaini izan dizkiodan poemarik onenak existentzialistak izan dira»

pen ikaragarria izan diot beste batzuen artean on Joxe Miel Barandiarani. Erbestetik etorri zenean, lagundu egin nion zenbait indusketatan, eta lagunak egin ginen. Nik neure kezkek agertu nizkion, eta berak kezka daukana interesantea dela esaten zidan. Nik bide hori jarraitu dut. Euskarari eskaini dizkiodan poemarik onenak, zentzu horretan, existentzialistak izan dira.

■ **Lagun izan eta jada joan diren artean ideologia eta bizi-**

**modu ezberdinetakoak zenituen. Gaur egun hori posible ikusten al duzu?**

Berrogei urteko diktadurak nolabait denok ukitu gaitu, eta itxiegia ikusten ditut talde politikoak, tolerantziarik gabe. Sarri, abertzale direlako, euskararik jakin gabe erdararen kontra gerran eta euskara goratzen, baina ikas-teko asmorik ez. Hori ez da zentzuna.

Nik Euskararen ostarreak liburuan aipatzen dut gaur egun horrek ematen didala min. Lehenengo egin behar duguna, gure historia, lehena eta oraina errealitatean jarri, eta hori ikusirik 'nola egin behar dugu?' galdetzea da. Euskara berreskuratu behar baldin badugu, hasteko, abertzale guztiek euskara ikastea konpromezua hartu behar dugu, eta eredu eman, eta maitasunarekin konkistatu. Ezin dena egin da funtzionarioa behartu euskara ikastera. Batzokietan, gaztetxetan eta herriko tabernetan behar-

tu behar dira abertzale direnak. Orain, euskaltzale talde bat egin da —Euskararen Kontseiluaz ari da—. Nik beti beldurra izaten dut, talde itxi bat bilakatuko ote diren, eta nik konfiantza dut talde horretan. Gaur egun premia dugu euskaltzaleok bide hori hartzeko. Nik ez dudalako Euskal Herria euskararik gabe ulertzen. Bera da nire aberria eta bandera. Daukagun berezitasun bakarra munduan, hori da.

■ **Gaia aldatuz, gustura geratu al zara Giro gori poema liburuan egin dizkizuten itzulpenekin?**

Nik uste ondo egin dutela itzulpena. Baina garai hartako poeta askoren poemak itzuli ditut euskarara liburu horretan. Badakit, beraz, zein zaila den itzulpen egoki bat egitea. Sentimendu eta pentsamenduen artean sartzea, zeureak ez direnean, gainera, eta hizkuntza baten estiloa eta esakerak topatzea, ez da erraza. Horregatik, itzultzeko zailena poesia da, baina poemaren mamia adierazteko bada itzulpena, konforme naiz, Uste dut hau ongi egin dutela.

■ **Euskaltzaindian zinela sortu zen h-aren eztabaida gogora dakarren poemarik baduzu liburuan, Batasuna hautagai izenekoa. Nola gogoratzen duzu eztabaida hura?**

Garai hartan modan zegoen poesia plastikoaren entsegu moduan egin nuen. Argitaratu gabe zegoen, garai hartan Euskaltzaindian idazkari nintzelako, eta egin nuenean pentsatu nuen publikatuz gero ikaragarriko gerra sortuko zuela, eta nahikoa eztabaida bazegoela jada.

Garai gogorak izan ziren haiek. Nire defentsa beti izan zen aurreko lau urteetan ere hor izan nintzela denentzat idazkari lanetan. Gero, askorentzat deabrua nintzen, eta horrek min ematen zidan. Horregatik gorde nuen poema hori. Beti esaten dut Euskaltzaindiko agiriak nik h-rik gabe idazten nituela. Arantzazun erabiltzeko gomendioa eman zenean, jarraitu egin nuen.

Nire ustez banekien zeini jarraitu, bere jakituriagatik eta bere ahalmena besteenon gainetik ikusten nuelako. Hori zen Mitxelena. Kostatuko zaigu horrelako beste bat lortzea. Euskalki guztiak ezagutzeaz gain, munduko linguistikaren jokabideak ezagutzen zituen.

Amagoia Iban  
HONDARRIBIA